

Hazparneko larrugintzako langileak Latinoamerikan (XVIII.tik - XX.mendera)



ORKEIA

3.zenbakia-2024ko ekaina

Obratzea: ONDAREA , Hazparneko Historia Batzordea:

Beñat Çuburu-Ithorotz
Marie-Françoise Durruty
Txomin Heguy
Xavier Larre
Marie-Jo Vigié

Dosierraren moldaketa: Txomin Heguy



Beñat Çuburu-Ithorotz

ORKEIA ale honen gauzatzeko, gehienbat Beñat Çuburu-Ithorotzen ikerketa lanean oinarritu gara. Beñat Çuburu-Ithorotz, Baionako eta Euskal Herriko IUTen español irakasle da eta ONDAREA, Hazparneko Historia Batzordeko kide.

Hazparneko Historia Batzordea ORKEIA dosieren obralari bakarra da.

Batzordearen kideek dossier hau arta handienarekin idatzi dute eta honen edukiaren egiatasuna zaindu. Gure iturri guziak izendatuak dira.

Edozein ikerketa ez da behin betiko finkatua; hots, gure ikerkuntzen eta aurkikuntzen arabera, datozen argitalpenetan beharrezkoak izanen diren zehaztasunak eta zuzenketak plazaratuko ditugu.

ORKEIA dossierak librokori balia daitezke hezkuntza munduan bai eta bitartekaritza kultural zein turistiko sailetan.

Egilearen baimenik gabe, beste edozein ustiapen debekatua da.

aintzin-solas	4
Hazparneko testuinguru sozio-ekonomikoa XVIII. eta XIX. mendeetan	5-7
Hazparneko atzerriratzearen ezaugarriak XVIII. mendetik XX. mendearen hastapeneraino	8-15
euskal ofiziale izatetik amerikar industrialari izatera	16-21
Latinoamerikan larrugintza industrian aritu ziren Hazparneko emigrante batzuen irudiak	22-29
ustiapen pedagogikoa : bide batzuk	30
artistaren begirada : Pantxix Bidart	31
Ondarea, Hazparneko Historia Batzordea : berriak	32

J'entre dans le train. Je cause de là étant avec Papa jusqu'à ce qu'arrive le moment du départ. Le train siffle et part. Je me mets à la portière et je regarde Papa autant que je peux le voir et puis je rentre la tête et je reste rêveur jusqu'à Bordeaux causant très peu avec Messieurs Amespil, Legagnoa et Jaurito. Nous arrivons à Bordeaux sans aucun incident. A la gare nous trouvons Monsieur Vidart en aussi bonne santé que toujours. Il s'empresse de nous décharger de nos multiples colis et nous conduit chez lui...Comme toutes les chambres sont occupées, je me couche dans une chambre à deux lits avec un bon type basque de Saint-Jean-de-Luz qui allait au Chili et qui devait faire 30 jours de traversée.



Baionatik Guanajuatorainoko bidaiaren egunkariaren zati bat.
Jean-Baptiste Lissarragueren gutunak (1902-1906)
Emigrer au Mexique à 15 ans. Beñat Çuburu-Ithorotz

Montevideo-ko berriak. (1. kopla)

**Euskal Herrietarik izan dut galdia
Montevideon nola bizi den jendia.
Erran nahi dautzuet bihotzez egia:
Ene herritar maiteak; eizue guardia!
Hemengo bizia,
Horkoa iduria
Ez da hainitz hobia:
Hor ontsa denik, hunat ez bedi abia!**

Jose Mendiague (1845-1937), Uruguaira atzerriratu zen hazpandarra.
Besteak beste, Jose Mendiague

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi bertso famatuak idatzi zituen,
Mikel Laboak bereziki kantatu zituenak.

ORKEIA urtekariaren 3. zenbaki honetan, Hazparneko historia sozialari eta ekonomikoari lotua den atal erranguratsu bat jorratzen dugu, hain zuzen kasik bi mende eta erdiz Hazparnek ezagutu zuen emigrazioaren garrantzia.

Ale honetan agertzen dugun gai nagusi hau, gure Hazparneko Historia batzordeko kide den Beñat Çuburu-Ithorotzek* hainbat urtez eraman duen ikerketan oinarritzen da. Bilaketa lan horren bilduma laburra da, Hazparnek ezagutu zuen atzerriratze fenomeno horren nondik norakoa handizki argitzen duena, nahiz dakigun ez zuela emigrazioak bakarrik Hazparne hunki baina orohar Ipar Euskal Herri guzia.



Kaiet Hiriarten zurrategia Banes herrian (Kuba) Beñat Çuburu-Ithorotzen artxiboak.

3. ORKEIA honen izenburuak adierazten duen bezala - Hazparneko larrugintzako langileak Latinoamerikan (XVIII.-XX. mendeetan)- munduko eskualde horretan Hazparneko emigrazioaren presentzia eta eragina bereziki aztertzen da. Hain zuzen, Beñat Çuburu-Ithorotzek moldatu duen datu-base handian arakatuta – jatorriz hazpandarrak ziren 2 782 emigrantez osatua-Latinoamerikara atzerriratu zirenen kopurua %75koa dela nabaritzen da. Bi herri izan ziren nagusiki harrera lur : Argentina eta Uruguai, emigranteen kopuru osoaren %62 erakarriz. Beste hiru herriak ; Kuba uhartea, Txile eta Mexiko. Euskal emigranteen eragina zurrugintza eta zapatagintzaren garapenean herri horietan, molde industrialan ere, ikusiko dugu. Gainera, Hazpandar batzuen salbuespeneko ibilbide harrigarria desubrituko dugu.

Baina, ikerlariaren ekarpena urrunago doa. Gainez gain aurkeztuak badira ere, emigrazio horren arrazoi nagusiak aipatuak dira. Beste gauza bat hain segur gutiago ezaguna dena, XVIII. mendean España Estaduko eskualde batzuetara eta bereziki Galiziara atzerriratu ziren euskal zurrugile sare bat izan zela, eta zurratzaile horien artean hazpandarrak agertzen direla. Ondoko bi mendeek ezagutuko zuten emigrazio handiaren aintzindariak nolazpeit. Bestalde, ikusten da ere, eta ez da lan honen interes ttipiena, nahiz jendetza handia Hazparnetik atzerriratu garai horietan, nolaz eta zergatik Hazparneko demografia nabariki mantendu zen, 5 000ko jende kopuru egonkor hori atxikiz XX. mendearen amaiera arte. Ohargarri da konturatzea azken 25 urte hauetan, iraunkortasun demografiko hori itzulipurdikaturik, Hazparneren jendetza emendatu dela bi mendez galdu duenaren kopuru berdintsuaz.

ORKEIA honetan ere gure usaiako orrialdeak aurkituko dituzue : artistaren begirada, hain zuzen Pantxix Bidart Hazpandar kantariarena, iraganarekin eta bere sorterriarekin duen harremanaz gogoeta sakon eta hunkigarri bat eskeintzen digula; ustiapen pedagogikorako proposamendu batzuk, eskola munduari bereziki zuzenduak, bai eta ONDAREA gure Batzordearen azken berriak.

"Les travailleurs du cuir d'Hasparren en Amérique latine. Étude micro-historique d'une émigration spécialisée."
Thèse de doctorat d'Études hispaniques et hispano-américaines et d'Histoire en cotutelle internationale avec l'Université de Bordeaux Montaigne (UBM) et l'Université du Pays Basque (UPV/EHU) soutenue le 8 juillet 2022 par Beñat Çuburu-Ithorotz.

Ekonomia bizkor bat. Jarduera ainitza finkatu bat.

Ekonomia arloan, XVIII. eta XX. mendearen artean, Hazparneko bizitasunaren adierazle nagusia haren merkatua izan zen. Kanpotik sartzen ziren merkantzia ugari eskuratu zitekeen, lekuko ekoizpenak saltzen ziren eta aldian aldika jendetza handia biltzen zuen gertakaria zen.

Bizkortasun ekonomiko hori handizki hedatua zen jarduera ainitza batean bermatzen zen. Hain zuzen, garai horietan, hiru jarduera proto-industrial laborantzaren bizikide ziren : oihalgintza, zurragintza eta zapatagintza.


Landagune munduari erabat lotuak ziren, lanbide bikoitza zuten laborarien esku zirelako gehienbat.

Ondorioz, Hazparnek laborari-zurratzailea, laborari-zapatagilea, laborari-ehulea bai eta ere laborari-langilea XX. mendean ezagutu zuen. Hots, jarduera ainitza beti azkar izan zen Hazparnen, egoera horrek ezegonkortasunaren aurka ihardokitzea ahalbidetzen baitzuen langabezia, eritasuna, uzta txarrak edo laborantzako prezioa aldaketak zirenean.

Lau ehun presunek oihalgintzan lan egiten zuten eta Hazparneko jendetzaren laurden bat jarduera horri esker bizi zen XIX. mendearen hasieran. Oihalgintzako jarduera horrek ofizio osagarri batzuk ahalbidetu zituen, batzuk gehienbat emazteen esku zirenak (irule, liho garbitzaile eta orraztatzaile, dendari, brodatzaile...).



1. grafikoa. Zurrategien banaketa auzoaldeka 1831an.



Iturria: 1831ko zurrategien zerrenda baliatuz moldatua.

Hazparneko beste jarduera garrantzitsua zurragintza* izan zen. 1831ko dokumentu batek zurragintza egiten zen etxeak zerrendatzen ditu, gehienak laborari etxeak zirela. 51 zurrategi bazeuden herriaren eremu guzian banatuak, bereziki Urkoi auzoaldean.

Testuinguru horretan, ez da harritzekoa oinetakogintza edo zapatagintza garatu bazen Hazparnen, larrua gehienbat lekuan berean ekoiztua baitzen eta jendetzaren beharrak handiak baitziren. 1891an, 860 gizoneketa 685 emaztek lan egiten zuten larrugintzaren sektorean, Hazparne zelarik orduan Basses-Pyrénées departamenduko zapata fabrikazigune handiena.

*Ikus ORKEIAREN lehen zenbakian, 5, 9 eta 10. orrialdeak.

Garai haietan Hazparneko jendetzaren zati baten atzerriratzearen zergati nagusiak

Gosete eta laborantza krisialdi denboraldi batzuek Euskal Herria eta pirinioetako eskualdea handizki jo zuten XVIII. mendean eta XIX. mendearen lehen erdialdean. Bizkortasun ekonomikoa ezagutu arren, Hazparne ere hunkitua izan zen. Behin eta berriz, herriko ordezkariak jendetzaren parte handi baten behartasunaz griñatzen ziren, bihi eskasaz jendearen asetzeko urteko hilabete batzuek eta herriko lur batzuen saltze beharraz lur-landuen eremua emendatzeko eta herriko zergen ordaintzeko.

Bestalde, Frantses Iraultzaren eraginaz, ordu arte zituen abantail batzuk galdurik, Hazparneko merkatuko prezioek beren erakargarritasunetik galdu zuten ; ondorioz merkatuak zuen garrantzia murriztuz joan zen, honek oihalgintza bezalako saila apurka ahulduz, sail horretako ekoizpenen parte handi bat hor baitzen saltzen.



ONDAREaren artxiboak.

XIX. mendearen bigarren erdialdetik hara, zurragingintza ere etengabeko beherakada ezagutu zuen. Arrazoi nagusiak hauek dira : oïdium izurriteak handizki hunki zituen lurraldeko haritzak, Hazparneko zurragingintza ez zen teknika berriei egokitu, zurratzaileak eta larru apaintzaileak zerga piztuak ordaindu behar zituzten.

Zergati nagusi horiek azaltzen dute neurri handi batean Hazparnek bi mendez ezagutu duen emigrazio garrantzitsua eta jarraikia.

Atzerriratze hori izanagatik, mantentzen den jendetza bat


Atzerriratze horren ezaugarri nagusiak azaldu aitzin, ohargarri da ikustea garai haietan Hazparneko jendetza mantentzen zela nahiz ekonomiazko zertzeladek hainbat jende partizera bultzatu. Jendetza hori 10%ez emendatuz joan zen Hazparnen XIX. mende osoan, Basses-Pyrénées departamenduan eta Ipar Euskal Herriko beste hainbat lekutan ttipitu zelarik mende horren bigarren erdialdetik hara, hain zuzen emigrazio garrantzitsu horrengatik.



Archives Ondarea.

Nahiz atzerriratze handia eta jarraikia ezagutu, Hazparnek bere jende kopurua atxiki zuen garai haietan Hazparne auzo herrietatik etorritako biztanleak etengabe errezebitu zituelako. Oihalgintza eta zurragintza ttipitzen ari ziren une berean, zapatagintzak ihardokitzen zuen, eta gainera, XIX. mendearen azken hamarkadeetan ekoizpen industrial mota batetara pasatu zen. Hazparnen zapatagintza lantegi ttipi batzuk sortzeak auzo herrietan sortutako jende ainitz Hazparnera erakarri zuen. Gertaera hori, 1876ko jendetza kondaketaren erregistroaren azterketak (lehen azterketa jenden sorteria seinalatzen duena) argiki adierazten du. Urte hartan, zenbatuak izan ziren 5332 presunetatik, 1662 beste herri batean sortuak ziren (31,24%).

2. grafikoa. Hazparnen sortuak ez ziren biztanleen ehuneko zenbatekoa 1876an.



n. Iturria : 1876ko jendetzaren kondaketa erregistroan hartu datuak. Hazparne herriko artxiboak.

Parean eta azpi honetan agertzen ditugun grafiko eta lauki hauek adierazten dute, alde batetik Hazparneko auzoaldean erakargarritasuna inguruko herrietatik datozen biztanleengan, bestetik Hazparneren eta inguruko herri batzuen jendetzaren bilakaera 1876tik 1911ra.

Hazparneko kantonamenduko jendetzaren bilakaera (1876-1911)

Communes	1876	1881	1886	1891	1896	1901	1906	1911
Hasparren	5 332	5 716	5 822	5 758	5 568	5 735	5 522	5 280
Bonloc	290	269	272	240	215	200	190	181
Macaye	718	694	693	728	719	711	712	678
Méharin	542	524	534	521	531	516	491	471
Mendionde	1 451	1 200	1 158	1 125	1 038	1040	1 028	1 066
St Martin d'Arberoue	550	543	540	521	507	509	512	458

Iturria : INSEE. Pirineo-Atlantikoak, mende baten jendetza (1876-1975).

Erakargarritasun-lekuz aldatze* fenomeno horrek (auzo herrietako jendeen etorreralekuko jendetza zati baten partitzea) Hazparneko jende kopuruaren mantentzea XVIII. mendetik XX. menderaino argi eta garbi azaltzen du.

*Fenomeno hori Ernst Georg Ravensteinen(1834-1913) ikerketa lanek ongi azaltzen dute eta « Ravensteinen emigrazio Legeak » izenburuaz ezagunak dira.



Ernst Georg Ravenstein


Aintzindariak : zurratzaileen atzerriratzea Galiziaruntz XVIII. mendean

Herri artxiboetan Hazparneko emigranteen egoera zibilaz egin ikerketek erakustera eman dute zurratzaile andana batek España aldera atzerriratu zirela, Valladolid eta Madrileren besteak beste. Galizian ere XVIII. mendean atzerriratu ziren euskal zurratzaile sare baten berri aurkitu dugu, batzuk jatorriz Hazpandarrak zirenak. Hazparnek ezagutu zuen emigrazioaren aitzindari gisa kontsideratu ditzakegu, hala nola Landesetako Marensin eskualdeko aroztegiara hilabete andana batez lanean aritzera joaten ziren aizkolari eta ikazkinak.

Galiziako zurragintzak egiazko oldarra ezagutu zuen XVIII. mendeko azken laurdenan, Corognekoko portua kolonial bidean sartu zenean. 1804an, 37 zurrategi baziren galiziar lurraldean eta XIX. mendean, Jondoni Jakobe hiria Galiziako zurragintzaren erdigunea bilakatu zen.



Konpostelako Santiago katedrala.



Galiziako El Ferrol portuaren gaurko irudi bat..

Hazparneko eta auzo herrietako zurratzaileek Galiziako zurragintzaren garapenean aktiboki parte hartu zuten. Galiziaren hautua ez zen ustegabekoa izan. Eskualde horretan, euskal zurratzaileek beren herrian ezagutu zituzten baldintza berdintsuak aurkitu zituzten, bereziki larruaren zurratzeko erabiltzen zituzten zuhaitz motak. Bestalde, Baionako eta El Ferrol portuen arteko tradizio komertzialak galiziar lurraldean euskal langile diaspora horren kokapena erraztu zuen. Gainera, El Ferrol portua Río de la Platatik etorritako larru inportazio sargune handia zen.


Zurrategi berriek euskal zurratzaileak enplegatu zituzten, eta zenbat urteren buruan, hauek beren kondu hasi ziren Konpostelako Santiago eskualdean, hala nola Jean Elissalde, jatorriz Iholdiarra eta 1786 heldua, Kanboko Jean Celhay (1791), Baxe-Nafarroako Pierre Isulidet (1791), Hazparneko Jean Arricart (1791), Iholdiko Laurent Aroca (1793), Baxe-Nafarroako Pierre Idiart (1792), Hazparneko Jean-Baptiste eta Guillaume Broussain (1792), Aiherrako Bertrand Garra (1797), Lekorneko Pierre Diz (1797).

* X. CARMONA, M.T. FERNANDEZ, A COMPOSTELLA INDUSTRIAL Historia e pegada das fábricas de coiros no concello de Santiago 61 orrialdea.

Gehienak Galiziara joan ziren Jean Elissalde lehenarengana, langile bezala haren zurrategian aritzeko, beren lantegi propioak sortu aitzin. Zenbat urte berantago, XIX. mendearen hastapenean, beste zurratzaile batzuk haiengana iritsi ziren, beren lantegiak ireki zituztela : Heletako Bernard Harriague (1802), Hazparneko Jean Jauréguiberry (1808), Guillaume Portasany (1808), Hazparneko Jean Baptiste Oyharçabal (1810), Hazparneko Christophe Durruty (1820), Iholdiko Jean Harguindeguy Garra (1823) eta Martin Dartayet 1827an.

Azpi honetan agertzen dugun mapa honek Galizian euskal zurratzaileek sortu zituzten lantegiak zerrendatzen ditu (ez dugu pentsatzen zerrenda hau osoa denik). Ikus dezakegu euskal zurratzaileen presentzia Galizian ez zela anekdotikoa.

1. mapa. Euskal zurrategiak Galizian.



Iturria : Beñat Çuburu-Ithortzek egina iturri desberdinak erabiliz.

Iragan industrial horri lotuak diren lekukotasuneklantegia batzuk Hazparnen edo auzo herrietan ezagutzen zen ofiziale ereditik aski urrunduak zirela argiki adierazten dute. XIX. mende osoan, Jean Harguindeguy edo Dominique Etcheverry-ren lantegiak Galiziako garrantzitsuenetarik izan ziren. Betanzos-en zegoen Marcelino Etcheverriaren « La Madelena » zurrategiaren erreprodukzioak frogatzen digu (Marcelino Etcheverria - honen deitura españolez idazten zuen- , Dominique Etcheverryren semea zen).

Etcheverria familiaren « La Madalena » zurrategiaren erreprodukzioa 1890an.



Iturria : X. Carmona Badía, M.T. Fernández Vázquez, Op. cit. 86. orrialdean.

Hala ere, galziaz zurrategi gehienak izari ertainekoak edo ttipikoak ziren. Hamar bat baino gutiago langile enplegatzen zituzten, hauen hilabete sariak apalak zirela. Batzuek tokian bertan langilei aterpe bat proposatzen zien, sukalde batekin otorduen preparatzeko. Hamarkada batzuk berantago, ezaugarri berdinak ikusten ditugu Amerikan kokatu ziren euskal zurrategietan.

Jeanne Broussain, 1870 urtea
aitzin egindako argazkia.




Hain segur, Galziaz
aurkitutako argazki
zaharretarik bat.
Iturria : X. Carmona Badía,
M.T. Fernández Vázquez.

Azkenik, Jeanne Broussain, Marie Dainciart edota Marie Garra (atzerriratu ziren zurratzaile batzuen espos edo alaba) bezalako emazte batzuen papela azpimarratzekoa da. Haien senar edo aita hil zitzairenean, familiako zurrategiaren ardura beregain hartu zuten, enpresaburu jeinutsuak bilakatuz bereziki gizoni zuzendua zen larrugintza alorrean.

Masa atzerriratze bat Amerikara buruz XIX. mendean

Jatorriz Hazpandarrak ziren 2782 emigranteen datu base bat moldatu dugu. Río de la Plata herrietara joan ziren emigranteen kopuru handia adierazgarria da : Argentinara 1183 (kopuru osoaren %43) eta Uruguaira 518 (kopuru osoaren %19). Bi herri horiek Atzerritar guzien %62 berenganatu zuten. Hazpandarrak atzerriratu ziren hirugarren herria Kuba da : 162 emigrante zenbatu ditugu han, kopuru osoaren %6. Gero Txile, han 149 emigranteen hatzak aurkitu ditugu : kopuru osoaren %5. Hazparneko atzerritarrak abegitu dituen Latinoamerikako bosgarren herria Mexiko da : 43 emigrante, kopuru osoaren %2.

3. grafikoa. Hazparneko emigranteen helmugak (XIX. –XX. mendeak)



Iturria : Beñat Çuburu-lthorotzek egina iturri desberdinak erabiliz.

Hazparneko biztanleak frantses lurraldeetan ere atzerriratu ziren, idendifikatu ditugun emigranteen %10. Bestalde, goiko grafikoan, Estatu Batuak ere agertzen dira, baina hara Baxe- Nafarroako herrietatik joan ziren jende ainitz, Hazparneko emigranteek aldiz ez zuten bide hori hartu.

1825tik hara, Uruguako Ekialdeko Errepublikak bere jendetza emendatu nahian emigrazio politika ausart bat bideratu zuen ; Gaur egun, herri horren hedadura 186 926 km2 da, 3,5 milio biztanle ditu, 1830. Urtean aldiz, 74 000 biztanle zituen. Hamar urte berantago, 1840an, haren jendetza bikoiztu zen : 140 000 biztanle, 30 000 kanpotiarrak zirela. Montevideo hiriburuak 34 000 biztanle zituen, 26 000 kanpotiarrak zirela (erdia jatorriz frantsesak).




1841an, 2 145 frantsesek Kontxuletxean heldu berriak direla sinalatzen dute, horien artean jatorriz Basses-Pyrénées departamenduko 1 387 Euskaldun, kopuru osoaren %64 ; 66 Hazpandarrak ziren ; 1842an, 2 716 izena eman zutenak, horietan 1 492 Euskaldun, kopuru osoaren %55 ; 53 hazpandarrak ziren.

Heltzeak handizki murriztu ziren 1843tik hara, Gerla Handia deitua izan zen gerla zibila hasi zelako Uruguaien. 1851a arte iraun zuen eta emigrante ainitzek gertakari horietan parte zuten. Alde batean edo bestean parte hartu zutenek frantses nortasuna galdu zuten eta uruguaitar bilakatu ziren.

Hazparneko emigrante ainitzek Argentina hautatu zuten XIX. mendearen bigarren erdian. 1890tik hara, piskanaka Amerikako norabidea utzi zuten, Bordale edo Parise bezalako hiri handi batzuetara emigratzeko.

Emigranteen lanbide espezializazioa : orozgainetik larrugintzako ofizioak

4. grafikoa. Datubasean identifikatuak izan diren emigranteen lanbideak.



Hazparnetik abiatu zen emigrazioaren berezitasuna haren lanbide espezializazioa da. Hain zuzen, haietarik %36a zurratzaileak edo zapatagileak ziren.

Iturria : Beñat Çuburu-Ithorotzek egina iturri desberdinak erabiliz.

Zurratzaileak

Haien abiatzea aitzin 167 zurratzaile identifikatu ditugu. Haietarik gehienak España buruz atzerriratu ziren : orotara 79, kopuru osoaren %47,3. Latinoamerikan, Kuba herrira joan ziren zurratzaile gehienak : 32 zenbatu ditugu (% 19,6). 23 zurratzaile Argentinara atzerriratu ziren (%13,77), 9 Mexikora (%9,39) eta 8 Uruguaira (%4,8).




Choribit zurrategia. Beñat Çuburu-lthorotzen artxiboak.

Zapatagileak

.Hazparne utzi aitzin zapatagile deklaratu zirenen kopurua da handiena, orotara 606 zenbatu ditugu. Haietarik 285ek Argentinara joateko hautua egin zuten, kopuru osoaren %47,02. Uruguai da hautauta izan zen bigarren helmuga : 118 (kopuru osoaren % 19,47). Ondorioz, Río de la Platako herrietara orotara 403 zapatagile atzerriratu ziren (hots kopuru osoaren % 66,5). Latinoamerikako hirugarren herri hautatuena : Kuba : 49 etorkin (%8,08). Atzerriratu aitzin lanbide hori zaukaten. Antilletako uharte horretan ainitzek zurragintzako ofizioa hartu zuten.

5. grafikoa. Hazparneko zapatagileen helmuga.



Iturria : Beñat Çuburu-lthorotzek egina iturri desberdinak erabiliz.

Orosgainetik gizonak eta gazteak

Emigrante gehien gehienak gizonak izan ziren -2 782tarik 2 549 gizon- eta gazteek. Baina, atzerriratzeko mementoan zein izan zen presunen adin zehatza biziki zaila da xuxen jakitea. Ainitzek ez zuten pasaportetik egiten eta partitze

klandestinoak ugariak ziren, bereziki Donostia auzoan den Pasaiako portutik (hortik abiatzen ziren bidaiariak ez ziren bortxaz ontziratzen ziren zerrendetan agertzen). Konkripzioko soldaduen falta seinalatzen zuten kantonamenduetako erreklamendu zerrendek (zergitizat usu emanez « Ameriketara » edo « Buenos Airesen »), bai eta militar erregistroek adierazten digute kasu gehienetan, hogeitau aitazin atzerriratzen zirela presunak, baina adin zehatz bat argitu gabe.



Gipuzkoako Pasaia portuaren gaurko irudi bat.


Kontsulatuetelean bildu izen emateak dira ere xehetasun iturri. Erregistro horiek harrera herriaren frantses kontsuletzelean bildu joaleen izen emate eguna argitzen digute. Erroldatu ditugun 2 782 emigranteetarik 1 105en izen ematearen eguna kontsuletzelean eskuratu dugu. Izena eman zuten batzuek besteko adina 26 urtekoa zen, etorkin gazteenak 3 urte zituen, zaharrenak 76 urte.

Azkenik , erroldatu ditugun 2 549 gizonetarik, bakarrik 418en egoera-zibila eskuratu bide dugu : 281 ezkongabeak ziren (kopuru osoaren %67,2), 131 ezkonduak (kopuru osoaren %31,3) eta 6 alargunak (%1,4).

Emazte emigrazio biziki apala

Erroldatu ditugun 2 782 joaletatik, bakarrik 233 emazte zenbatzen ditugu (kopuru osoaren %8). Halere, zenbaki horiek erlatibizatu behar dira, emazteetatik xehetasunak biltzeko iturriak ez baitira gizonentzat bezain ugariak ez eta fidagarriak.

6. grafikoa. Emigranteen generoa.



Iturria : Beñat Çuburu-Ithorotzek egina iturri desberdinak erabiliz.

Hain zuten, gizonentzat bezala, ez ditzakegu zehatzak eta zorrotzak diren militar iturriak balia emazteentzat. Bestalde, kontsuletzeetako erregistroek ez dute beti esposaren izena adierazten etorkin batek berea ematea zuenean, eta emazte emigranteari buruzko xehetasunak zatikatuak eta zehaztugabeak agertzen dira.


Ikerketa desberdin batzuen arabera, badirudi emigrazio orokorraren laurdena izan zela emazteena, hots Hazparnerentzat neurtzen dugun zenbakia baino aintzez goragokoa.

Soldadugoari ihes egiteko emigratu

Pirinio eremu osoan, Basses-Pyrénées departamendu guzian bezala, soldadugoari ihardukitze handia zegoen Ipar Euskal Herrian. Soldadugoaren hasieratik Lehen Munduko Gerlaren bukaeraraino, insubordinazioa biziki garrantzitsua izan zen. Hastapenean, beste eskualde batzuei konparatuz, apalagoa izan baldin bazen, iraunkorragoa izan zen. Erregimen Zaharran jadanik, gizon gazteek ez zuten erregearen armadetan sartu nahi, insumisioa eta deserzioa ohiko eginmoldeak ziren.

Eginmolde horietaz Hazparne herriko artxiboek dokumentu ugari dituzte eta soldadugoaren errolda erregistroek xehetasun interesgarriak dakartzate. Ohartzen gara 1830 eta 1930 artean, erroldatuak ziren gazteetatik %30a falta zela soldadugoaren egiteko zozketan. Kasu gehienetan, erroldatua zen gaztea falta zen atzerriratua zelako, ardurenean soldadugoi ihes egiteko edo Hazparnetik urruneko herri batean bizi zelako ez baitzen zozketara joaten ahal. Grafiko bat ere moldatu dugu emigratu zuten herriko 1076 gazteen militar egoera argitzen duena. Xehetasunak erregistro matrikulari esker bildu ditugunak dira.

7. grafikoa. Egoera militarra emigrazio garaian.




Iturria : Beñat Çuburu-Ithorotzek egina iturri desberdinak erabiliz.

Kontsultatu dugun erregistro matrikularen arabera, Hazparneko 1076 emigranteetatik 592 intsumisoak deklaratuak ziren (% 55,01). Gazte bat intsumisoa deklaratu izan zitekeen ez baldin bazuen soldadugoa egina edo 45 urte arte egin behar ziren deialdi denboraldiak. Azken kasu hau usu ikusten zen deialdi denboraldi horiek biziki hertsagarriak zirelako. Soldadugoa egin eta emigratu zutenen kopurua %26,76a izan zen.

Familian emigratu

Identifikatu dugun familien kopuru orokorra 132koa da. Familia diogunean, bikote ezkondua mintzo gara, aita eta ama haurrekin, aita edo ama haurrekin. Familia horien osaketa kontutan hartuz, gehienetan 2, 3 edo 4 pertsonaz osatua, familian bidaiatu ziren 474 presuna identifikatu ditugu. Kopuru aski handiko familiak zenbatu ditugu, hala nola 5 presunaz osatutako 16 familia, 6 presunaz osatutako 8 familia, 8 presunetako familia bat eta 9 presunetako beste bat. 474 presuna horiek Hazparneko emigrante guzien %17ko kopurua da; hots, Hazparneko joaleen %83ek bakarrik bidaiatu dira, anai edo auzo baten laguntzarekin izan bada ere.




1007 — Messageries Maritimes "EQUATEUR" — E. L.

Hazparneko emigrazioarako sareak : « familia kontu » bat

Galiziara edo Kastillara atzerriratu ziren zurratzaileak, han beren lantegiak sortzeko parada ukan zutenak Hazparnera itzultzen ziren espezializatuak ziren langileen bila, familiaren edo auzoaldearen kideen artean. Horrelako sareak antolatu ziren ere berantago Latinoamerikara buruz joan zirenen artean. Kubaren eredia har dezagun araketa horren bermatzeko.

8. grafikoa. Familia sareak Kuban. Senitarteak.




Iturria : Beñat Çuburu-lthorotzek egina iturri desberdinak erabiliz.

Senitarte handienak anaia kopuruaren arabera (5 kide) Larralde-tiarrak izan ziren : Jean (1842), Martin (1847), Pierre (1854), Jean-Baptiste (1858) eta Jean (1861) ; Amespil-tiarrak : Jean (1801), Martin (1833), Etienne (1835; honek zurrategi bat bazuen Nuevitas herrian non honen anaiek lan egiten zuten), Bertrand (1838) Pierre (1841) eta Etcheverry bost anaiak.

Etcheverry-tarrak Amespil-tiarren kusiak ziren amaren partetik, hau ere Amespil deitzen zena. Gero, Nuevitasen zurrategi berdinean lan egiten zuten Hiriart anaiak aipa ditzakegu : Jean (1818), Gratien (1821), Martin (1823) eta Pierre (1831). Haien ama Londaitzbehere deitzen zen eta uhartean zeuden Londaitzbehere bost kusien kusiak ziren bai eta Gratien eta Pascal Daguerre bi anaiena. Bi anai hauek zurratzaile hasi ziren Amespilen lantegian Nuevitasen, geroago Gratienek bere zurrategia ireki zuela Gibara herrian.

9. grafikoa. Familiako emigrazioa.



Adibide batzuk baizik ez dira baina ongi adierazten dute familia sareen ibilmoldea (anai, kusi, osaba, iloba), larrugintzako sare profesionalekin batera antolatu zirenak.

Hipotesia bat egiten dugu : Hazparneko emigranteentzat, Españatik lehenik eta gero Ameriketatik antolatu ziren familia edo auzo sareak nahikoak eta aski eraginkorrak zirela Hazparnetik beste familia kide batzuen jinarazteko.

Hazparneko emigratzaileen ekarpena Amerikako zurragintzaren garapenari


Galiziara edo Kastillara joateko Hazparne utzi zuten zurratzaile batzuek han lantegi garrantzitsuak sortu zituzten, Hazparnen eta Euskal Herrian ezagutu zuten atisau eredutik aski urrun. Gauza bera egin zuten zurratzaileek Latinoamerikan abegi herrialeetako baldintzei egokituz (Argentina, Uruguai, Txile, Kuba eta Mexiko) eta beren antzea tokiko teknikekinalderatuz. Horrela, aktiboki parte hartu zuten zurragintzaren eta orohar larrugintzaren garapenean herri horietan, batzutan erreferentzia batzuk bilakatuz lantegi nazional batzuen buru izan arte.

Txileren adibidea

Ipar Euskal Herriko emigrazioarentzat Txile oso erakargarria izan zen. Jatorriz hazpandar, uztariztar, itsasuar edo ainhoarrak ziren asko han finkatu ziren. Ainitze komertsiaon edo industrian aritzea nahiago zuten laborantzan baino. XIX. mendearen erditsutan, industria oso guti garatua zen. Euskal emigranteak lantegi askoren sortzaile izan ziren larrugintza eta oinetakogintza arloetan. Hain zuen, zapatagintza lehen jarduera bilakatu zen Txilen.

Zurrategi handiak sortu zituzten euskal emigranteen artean, izenda ditzagun « Ayçaguer, Duhalde y Cía » Valparaiso herrian eta Jean-Michel Etchepare Santiagon. Ofizioa lehenago izendatu bien etxen ikasi zuen Bertrand Ilharrebordek bere lantegian 350 langileraino enplegatu zituen.

2. mapa. Euskal zurrategien kokapena Txilen.



Iturria : Beñat Çuburu-Ithorotzek egina iturri desberdinak erabiliz.



Jean Etchegarayen San Juan de Curicó zurrategia. Beñat Çuburu-Ithorotzen artxiiboak.

Jatorriz hazpandarrak ziern zurratzaileek industria horien garapenean aktiboki parte hartu zuten, langile edo enpresa jabe bezala : Choribit eta Léon-tarrak Chillán herrian, Etchegaray Curicón, Etchevers Talcan, Pla eta Partarrieu Valparaisoan, Issouribehere Concepciónen, Mendilahatsou Santiagon, Orthous Valparaisoan edo Broussaingaray Osornon.

Hazparneko joale aintzek mende batez horien lantegietan lana aurkitu zuten edo euskaldunek kudeatzen zituzten beste enpresa batzuetan. Hehienak langile xume bezala joaten ziren, heldu bezain laster enplegu baten aurkitzeko segurtamenarekin. Gero, zenbat urtez lanean ari izan eta diru puska bat baztertu ondoren, beren enpresa propioaren sortzera ausartzen ziren eta ohitura iraunarazten zuten Hazparneko langile berezituak etorraziz.

Hazparneko emigrante identifikatuak Txileko zurrategi eta zapatagietan.

Lantegia

Hazparneko emigranteak

Zurrategia	
Jean-Pierre Choribit (Chillán)	Choribit Jean-Pierre, Choribit Pascal, Choribit Joseph, Choribit Jean-Baptiste, Choribit Narcisse, Basterretche Charles, Léon Jean, Lissarrague Laurent, Marot Joseph, Partarrieu Jean, Partarrieu Pierre, Sabalo Laurent, Sarhy Jean-Joseph
Ayçaguer, Duhalde y Cía (Santiago du Chili)	Argagnon Jean-Baptiste, Diharce Bernard, Lataillade Jean, Mendiboure Pierre, Mendilahaxou Jean-Baptiste, Mendilahaxou Mathieu
Fischer & Mayte (Chillán)	Lacabaratz Laurent
Hippolyte Deyheralde (Concepción)	Deyheralde Hippolyte
Curtiembre San Juan Jean Etchegaray	Etchegaray Jean
Laurent Durruty	Durruty Laurent
Orkeia, zapatazola, zapata lantegiak- Oinetakotegia	
Broussaingaray Hnos. (Osorno)	Broussaingaray Dominique, Broussaingaray Jean-Baptiste, Broussaingaray Bernardin, Haramboue Robert, Ithorotz Roger
Fagalde & Hirigoyen (Valparaíso)	Bidegain François, Morlas Jean, Partarrieu Pascal, Pla Léon, Tellechea Zerafino
Pla y Partarrieu (Valparaíso)	Pla Jean-Pierre, Partarrieu Martin
Louis Hiriart (Temuco)	Hiriart Louis
Jules Issouribéhère (Concepción)	Issouribéhère Jules
Jean Mendilahaxou (Santiago)	Mendilahaxou Jean
Jean-Baptiste Orthous (Santiago du Chili)	Jean-Baptiste Orthous, Mendilahaxou Sauveur

Iturria : Beñat Çuburu-Ithorotzek egina iturri desberdinak erabiliz.

Hazparneko oinetakogileak Amerikan : Argentinaren adibidea

Argentinar zapatagintza industria XIX. mendearen azken hamarkadan sortu zen mekanizazioaren sartzearekin, garai kolonialean hasi zen zapatagintzaren segida hartuz. Identifikatu dugun Ipar Euskal Herriko lehen oinetakogilea badirudi Jean Anchordoquy izan zela. 1809ko erroldak bere presentzia seinalatzen du herrikide batekin ; « *Una carpintería de ormas de zapatos y votas* » deitu lantegi baten jabe ziren eta itxura guzien arabera, zapatagintza industriari lotu ziren lehenak izan ziren Buenos Airesen.



Euskal oinetakogileak Argentinan. Beñat Çuburu-Ithorotzen artxiboak.

1851an, 114 zapata tailer edo saltegi zenbatzen ziren Buenos Airesen eta batzuk Euskaldun batzuenak ziren : Valentin Etchegaray (almacén de zapatos), Martin Amespil (almacén de zuelas, gero zurratzaile bezala izendatua aurkituko duguna), Dominique Larralde (almacén de zapatos), Jean Baptiste Etchart (zapatería), Pierre Bidegaray (zapatería) eta Jean Olhagaray (zapatería). 1855an, emigrazio politika berri bati esker beren kondu ariko ziren emigrante ainitzen heltzea eta finkatzea ahalbidetuko zuena, 144 zapata-etxe zenbatuko dira. Horien artean, zenbat euskaldun emigrante aurkitzen ziren : Pierre Bidegaray, François Dartayet, Jean Etcheverry, Valentin Etchegaray, Jean Iramendy, Dominique Olhagaray, Jean Olhagaray eta Jean Jaccachoury.

Zurragintza industria bezala, emigranteen etorrerak zapatagintzaren industria zinez bultzatu zuen eta tailer asko lantegi ttipi bilakatu ziren, langileria eta ekoizpen ainitzez gehiagorekin.

Hiriburuan fama handia zuten oinetakogile eta botagileen artean, zeinek produktuak norberaren neurrian egiten zituztenak, euskal deiturak ohikoak ziren : Harguindeguy, Olhagaray, Etchegoyen, Çaldumbide, Amestoy, Garat, Elissamburu, Irigoyen... guziak Ipar Euskal Herritik joanak eta horietarik batzuk Hazparnetik. Apesteguy anaiek inportatzen zituzten espartin saltegi bat ireki zuten.



Espartinegileak. Beñat Çuburu-Ithorotzen artxiboak.

1880an, Antonio Balaguerek, jatorriz espainola zen emigranteak zapaten egiteko lehen makinak sarrarazi zituen eta ondorioz zpatagintzaren industriak egiazko iraultza bat ezagutu zuen.

1885an, Buenos Aireseko oinetakogile eta botagile korporazioak 357 zapata-etxe biltzen zituen eta jatorriz euskaldunak ziren zapatagileak ainitz ziren : Guillermo Amestoy, Juan Lorenzo Çaldumbide, Juan Cinqualbres, Esteban Daguerre, Pascual Diharce, Bernardo Duhart y Cía, Juan Eliçagaray, Pedro Elichondo... Juan Etchegaray*, jatorriz hazpandarra, espartinak ekoizten zituen eta herri guzian ezagutua izanen zen Alpargatas S.A. Argentinako espartin lantegi handienaren buru izanen zen.



José Mendiague hazpandar oinetakogile bertsolari famatua Uruguaiaren finkatu zen Argentinan epe labur bat egon ondoren.

1887ko irailaren 30an, *Unión Industrial Argentina* herriko hiriburuan lehen industriako errolda bideratu zuen. 31 zapata lantegi zenbatuak izan ziren bai eta 697 oinetakogile tailer, non zapatak egiten eta saltzen ziren. Zapata-etxe horietan 7 354 langile eta enplegatu lan egiten zuten, horien artean 6 548 kanpotiarrek.

XIX. mendearen amaieran, zapatagintza industriak monopolizazio bilakabide lasterra ezagutu zuen, kanpotiar inbestitzaile batzuen eskutan eroriz, anglosaxoiak bereziki. Aurreko hiru hamarkadetan Euskaldun ainitz zapata lantegi buru izan zirela eta, hortik aurrera Españolek eta Italiarrek gaina hartu zuten, Euskaldunek kudeatzen zituzten ekoizpen lantegi ttipien akabantza bideratuz.

Antze batekin atzerriratzea eta egokitzea

Hazparneko zurratzaileak Latinoamerikara atzerriratu zirenean, zurratzeko teknika berri batzuk bere egin zituzten. Hazparnen, haien laborari etxe-zurrategi ttipietan, larruak hobi batzuetan trenpatzen zituzten ur eta haritz edo gaztainondo-azal nahasketa batean (landare-zurragintza). Amerikan, beste zuhaitz-mota batzuen erabiltzera bortxatuak izan ziren eta batzutan ere, beste emigrante batzuek sarrarazi zuten kromozko zurragintza.

Hala nola Argentinan, garai kolonialaz geroztik, *Cebil* zuhaitzaren azala baliatua zen larruen zurratzeko. Curupay zuhaitzaren azala ere erabilia zen, honek tano asko baitu, eta ere zumaque, cachu edo molle zuhaitzena. Frantses, italiano, ingeles, aleman eta español zurratzaile batzuek berrikuntza batzuk ekarri zituzten, argentinar zurragintzari ezin ukatuzko kalitatezko aurrerapenak eginaraziz. Hain zuzen, italiar zurratzaile batek ustegabeen *quebracho* zuhaitzaren propietateak aurkitu zituen 1870 inguruan, bere zurrategiaren auzoan zen segeria batek erabiltzen zuen zuhaitz-mota horren hondarkinak begistatuz.



Quebracho zuhaitza

*Xehetasun gehiago 29. orrialdean.



Lingue

Txilen, bere afera sortu aitzin enplegatua izan zen beste zurrategietan Jean-Pierre Choribitek ikasitako teknikak eta baliatutako produktuak erabili zituzten Choribit anaien zurrategian Chillánen. Hain zuzen, tano hobiak lingue zur aulez estaliak ziren (propietate zurratzaileak dituen austriako zuhaitz mota bat). Zuhaitz horren azala baliatua izan Txilen argentinar quebrachoak ordezkatu baino lehen. Tanoz aberatsa da eta larruari kolore ilun bat ematen dio.

Kuban, Caibariéneko zurrategia sortu zuen jatorriz hazpandarra zen Esteban Delguyk, 1867an Pascal Duhalde beste esukaldun bati utzi ziola. Garai hartan, molde arruntak erabiltzen ziren : larru landugabeak kanpoan hedatuak ziren hesola batzuen gainean eta aura txoriek (txori hiliki jalea) larrua haragi hondarkinetatik garbitzen zituzten. Gero, kontserbatzeko larruak gatz lodiz estaliak ziren, urez beteak ziren hodi batzuetan sartu aitzin. Mando batzuek mugiarazten zituzten errotarri batzuek (harri lau eta erronda batzuk) manglier zuhaitzaren azala xehatzen zuten eta zurratzeko produktu horrekin beteak ziren hobi batzuetan larruak trenpatzen ziren. *Patabán* deitu manglier zuhaitza motaren hostoa, xehatu ondoren zurratzeko baliatua zen eta *patabán* horren azalak kolore gorrixka bat ematen zion larruari. Kubako zurrategian erabilia zen beste zuhaitz mota bat *quebracho* zen, edota oraindik jabí.



Aura hegaztia



Manglier zuhaitza

Atlantikako bi aldeetako elkarrekintza ekonomikoak

Harreman ekonomikoak egiazkoak izan ziren atlantika beste aldera joan ziren emigranteen eta haien jatorrizko herriaren artean. Lehenago aipatu dugun bezala, lehen froga izan zen larrungintzan espezialatu zen langileria baten lekualdaketa. Ohidura batean oinarritzen zen, Galizian zurrategiak ireki zituzten emigranteek hasia, eta beraz bide hori segitu zen zurrategien irekitzearekin Argentinan, Txilen, Kuban, Mexikon eta Uruguaien eta zapatagintza lantegiekin Txilen edota Argentinan. Hazparnen ikasitakoak emigratu zuten herrietan gizarteratzea ahalbidetu zien zurratzaile eta oinetakogilei, eta haietako ainitzek lantegi batzuk sortu zituzten. Bakar batzuk Hazparnera itzuli ziren eta Hazparneko zapatagintza lantegietan sartzea errestua izan zitzaizen Amerikan lortu eskarmentari esker.

Beti Hazparne-Amerika norabidean, Hazparnen eginak ziren zapaten komertzializazioa hego-Amerikan aipa genezake. XX. mendearen hastapenean, Dominique Hiriart-Urrutyren zapatagintza lantegia lehena izan zen Montevideon salmentagune bat ireki zuena, Hazparnen ekoiztuak ziren produktuen saltzeko. Horretarako, Uruguaien finkatua zen herritik joan emigrante sarea hain segur aprobetxatu zuen.

Amespil-tiarrek ere Hazparneko beren lantegietan ekoiztu produktuak saldu zituzten Argentinan. Ez zuten familiako errelebo eskas Hego-Amerikan, haien arbaso ainitz atzerriratu baitziren, Uruguaien (Amespil familiako 11 emigrante identifikatuak) zein Argentinan (14 emigrante identifikatuak).



Amespil-Mongour lantegia Hazparnen. ONDAREaren artxiboak.

Amerika-Hazparne norabidean, zurratzeko ziren larruazal gatzituen hornikuntza azpimarratu behar dugu. Hazparneko zurratzaileak larruazala eskualdean berean erosten zuten baina kopuruak ez ziren nahikoak, larruazalak urrunagotik sarrarazi behar ziren.



Hazparneko Lorda zurrategiak Uruguaitik jinarazitako larruazal batzuen faktura. Beñat Çuburu-lthorotzen artxiboak.

Zelaiko Lorda zurrategiko Garat familiaren eskutik lortu faktura batek xehetasun interesgarriak ematen dizkigu zenbat hornitzaileen jatorriaz. Hain zuzen, Garat andereak Baionan tratulari den Martin Hiriart bati Montevideotik datozen 150 behien eta 50 idien larruazal gatzituak erosi dituela adierazten digu. Badakigu Hazparneko emigrante batzuek Uruguaitik larruazal batzuen igorpenan parte hartu zutela, hala nola Pascal Harriague - urrunago honen irudia eginen dugu- *Saladero la Caballadaren* jabe zena. Bere sorterriko zurratzaileak errexki horni zitzakeen, behikunde kopuru handiak zuzenki tratatzen baitzituen eta hoiien larruazalak ainitz galdeginak zirelako Europan.

Mexikon, Saint-Martin Lissarrague aurkitzen zen. Zurratzaile bezala Hazparnen porrot egin zuen eta Guanajuatora atzerriratu zen, han oihal saltegi bat eta zurrategi ttipi baten jabe zela. Laurent haren semeak larrugintzan tratulari jarduera ttipi bat zuen. Bere aitaren eta Guillaume Lahirigoyenen -Mexikon finkatu zen beste hazpandar zurratzaile bat-zurrategietan hornitzen zen eta larruak Hazparnera bidaltzen zituen zapatagilei saltzeko.

Bestalde, Mexikon Laurent Lissarrague hori Donapaleu ondoko Oneixetik joan zen Carlos Markassuza emigrante aberatsaren eskuduna zen. Leónen ondoan eta Michoacáneko auzo estadian Markassuzak zituen *hacienda* batzuen administralaria zen ere. Hazparnera egin zituen bidaia batzuetaz baliatuz, Laurent Lissarraguek hazi mota desberdinak erosi zituen *hacienda* haietan landatzeko eta ordu arteko emaitzak hobetzeko asmoz.



Laurent Lissarrague.
Lissarrague familiaren artxiboak.

Pascal Harriague, oinetakogile-zurratzaile baten salbuezeneko ibilbidea, uruguaitar mahastizaintzan aintzindaria



Pascal Harriague.
Beñat Çuburu-Ithorotzen artxiboak.

Pascal Harriague Hazparnen sortu zen 1819ko apirilaren 14an Hazketa auzoaldeko Bidegain bordan. Familia handi bateko haurridea (sei anai bazituen), atzerriratzea erabaki zuen XIX. mendeko lehen emigrazio uhain handiaren karietara. Ez zen bakarrik bidaiatu eta beste bost hazpandarrekin Konsulaetxean bere izena eman zuen 1838ko ekainan. Montevideoara heldu zenean, oinetakogile zela deklaratu zuen.

Beñat Çuburu-Ithorotzen artxiboak.

Laster lana aurkitu zuen eta heldu berriak ziren emigrante ainitz bezala Montevideoko Cerroko hiltegian lanean hasi zen (« saladero » Uruguaien), non haragia ere gazitzen zen. Zenbat hilabeteren buruan, saltzaile zen San Joséko saltegi baten (pulpería), hiriburutik ehun bat kilometrotan. 1840an, uruguai ibaiaren ertzean zegoan Salto herrian finkatu zen, non 1840tik geroztik Quemado del Ceibal hiltegien jabe zen Jean Claveriek eskatu zion berarekin partzuer jartzea.

Gizon entseatua, Pascal Harriaguek zurrategi bat sortu zuen, hiltegi eta gazitegi gisa bestelakotu zuena « El saladero La Caballada ». Gauza desberdinak ekoizten zituen : haragi gatzituak bistanda, baina ere larru apainduak, xaboia, kandelak eta gantza.



Beñat Çuburu-Ithorotz artxiboak.

Herri horretan mahastizaintzaren garapena industriaren garaiarekin batera izan zen, 1860 urteetan. Urte horretan berean, Pascal Harriaguek mahatsondoak landatu zituen San Antonio Chicon zuen lur puska batean. Tokiko mahasti mota bat landatu zuen baina mahatsondoak ahulak eta ez emankorrak izanez, lehen uztak ez ziren onak izan.



Beñat Çuburu-Ithorotzen artxiboak.

Argentinako mugan zen Salto herrian bizi izanez, Concordiara joaten zen usu bere aferentzat (Entre Ríos probintzia Argentinan), Uruguai ibai mugaren beste aldean. 1874an egiten zuen bidaiaren karietara, Lorda izengoitia zuen Jean Jaureguyrekin harremanetan jarri zen, honek zenbat mahatsondo ekarri zituela Euskal Herritik joan zenean. Hain zuzen, mahatsondo horiek ongi hazi ziren, Tannat motakoak ziren, Bordelesa izenarekin ezagutuak Euskal Herrian. Lordak eskeini zizkion Saltora ekarri zituen ondo batzuk. Laster, 35 hektara landatu zituen eta bi urte berantago lehen uzta egin zuen, emaitza ederrarekin. Lehen kausipen horrek bultzaturik, pascal Harriaguek beste mahatsondo batzuk landatu zituen eta bere mahasti eremua laster 200 hektaretan hedatu zen.

1883an, Harriaguek 40 metro luze eta 14 metro largoko soto bat bazuen. 1885an, Harriaguek bere ontasuna oraindik zabaldu zuen eta 400 upela gehiago aterbetzen ahal zuen soto berri bat eraiki zuen. 1889an, 2000 upela biltzeko gunean bazeukan. Pascal Harriaguek bere ekoizpena emeki-emeki aniztu zuen, arno xuriak eta gorriak ere moldatuz. Gainera destilategi bat sortu zuen Frantzian ere salduko zuen arrakasta handia ukan zuen cognac baten ekoizteko.

Pascal Harriaguek bere izpiritu berritzailea inposatu zuen ere beste arlo batzuetan. Lehen olibondoak landatu zituen, lehen liranjondoak, eta Uruguai ipar-mendebal eskualdeko madariondoak eta mertxikondoak ; fruitu horiek esportaziorako ziren. Lehena izan zen ere martxukaondo xuriak hanizki landatu zituenak zeta harren hazkuntzarako. Harribitxiak ere biltzen zituen merkataritzarako. 1888an, Uruguaiako lehendakariak medaila bat eman zion haren jarraitutasunaz eskertzeko eta herrian mahastizaintza egiazki bultzatu zuelako. Urteborean, Barzelonako erakusketa unibertsalan, haren arnoentzat zilarrezko medaila bat ukan zuen. Ondoko urtean, Pariseko erakusketa unibertsaletik, zilarrezko eta bronzeko medaila banarekin eta ohorezko aipamen batekin etxeratu zen.



1894ko urtarrilaren 12an Parisen hil zen eta haren alabek bere hautsak Uruguaiako Salto herrira ekarri zituzten. Gaur egun Salton, etorbide, parke, plaza eta ikastetxe batek ere Pascal Harriaguen izena dakarte. Egia erran, Uruguaitarrek beren herriaren garapen ekonomirako ainitz egin duen salbuespeneko pertsonai bat bezala kontsideratzen dute.

Gaur egun, Tannat mota hortako 9000 hektara mahasti landatuak dira Uruguaien. Baina Harriague izenez hobeki ezagutua da, Uruguaiako mahastizaintzan aintzindari izan zen hazpandar emigrante horren deitura erabiliz. Argentinan, mota bera Lorda izenez ezagutua da Euskal Herritik eraman zuenaren omenez.

Gratien Daguerre, zurratzaile aberats okitua Kuban



Gratien Daguerre.
Beñat Çuburu-lthorotzen artxihoak

Gibara Holguín probintziako itsasbaterreko hiri bat da, Kubako lehengo Orienteko probintzian. Pierre(Pedro) Sondón, 1852an Aiherran sortua, hara atzerriratu zen 1870 inguruan, hiriko zurrategian lan egin zuen eta horren jabe bilakatu. Pedro Sondón aberastu zen eta urte batzuz adreilutegi, xalboitegi eta eskualdeko laborantza etxalde batzuen jabe egin zen. Egoera eroso horri esker, Holguíneko probintziako hiriburuan beste zurrategi bat erosi zuen, berarena uzten ziola Hazparnetik atzerriratu zen beste zurratzaile bati, Gratien (Graciano) Daguerre.



Nuevitas zurrategiaren jabe zen Etienne Amespilek Kubara jinarazi zuen Gratien Daguerre 1894an. Hazketa auzoaldeko Malechiatea etxean sortua zen 1874an laborari eta oinetakogile familia batean. Gratienek sortetxean ikasi zuen larrua zurratzen. Soldadugoari ihes egin zuen Kuba hautatuz, hain segur hara jadanik emigratu baitzuen amaren eskualdeko osaba batek. Gratien Daguerrek Gibarako zurrategia garatu zuen, eskualdeko industria famatuenetatik bilakaraziz.



Gratien Daguerre zurrategia.
Beñat Çuburu-lthorotzen artxihoak.

Garai ospetsuenean, 1940 urteetan, Gibarako zurrategiak hogeita hiru langile enplegatzen zituen eta 800 bat larru ekoizten hilabetero. Langile ainitz Hazparnetik zetozen. Horien harrerarentzat eraikia izan zen egoitza batean lo egiten zuten eta kubatiar sukaldarisa batek otorduak preparatzen zizkieten. Jatorriz Hazpandarrak ziren zurratzaileen artean, izenda ditzakegu Pascal Daguerre, Gracianoren anaia, haren iloba Jean Baptiste Hiriart-Urruty, Bernard Bacardats eta Jean Baptiste (Juan Bautista) Lahirigoyen. Azken hau Graciano Daguerren konfidantzazko gizona bilakatu zen, Gracianok Euskal Herrira egiten zituen bidaiak biderkatu zirenean eta bereziki, bere familiarekin urtearen parte bat Euskal Herrian iragaiteaerabaki zuenean bere biziaren amaieran. 1923an, Adrien Cinqualbresen aldia izan zen, Kubara heldu zena hamalau urtetan. Gero beste bi hazpandar joan ziren eta urte batzuez lan egin zuten Gratien Daguerrekin : Pierre Duhalde eta Jean Hiriart (Kayet deitua), azken honek zurrategi bat ireki zuena Banés hirian 1940 urte horietan.



Daguerre zurrategiari buruzko artikulua. Beñat Çuburu-Ithorotzen artxiboak..

Graciano Daguerre Gibaran zendu zen 1950ko abenduaren 22an, baina muntatu zuen zurrategiak segitu zuen haren hurrei esker eta bereziki Juan Bautista Lahirigoyenen lanari esker. Gobernu iraultzaileak sesitu ondoren, zenbat urtez hetsirik geratu zen berriz irekia izan arte, Juan Bautista Lahirigoyen ekoizpen zuzendari. Gero, zapatagintza lantegi bezala bestelakotua izan zen.

Gibararako biztanleak oroitzen dira diru pilik gabe kubara etorri zen emigrante aberats hartaz, katoliko suharrak bereziki. Meza ez zuen sekulan huts egiten eta komunioneke soinekoak ordaintzen zituen hiriko haur guzietan. 1929an, Naplesko lantegi bati ezkila bat manatu zuen, haren deitua gainean grabaturik, Gibarako elizaren ezkila dorrean beti joiten duena.



Beñat Çuburu-Ithorotzen artxiboak.

Pablo Lafitte, zurratzaile engaiatua eta humanista Kuban



Paulin Lafitte. Beñat Çuburu-Ithorotzen artxiboak.

Paulin Lafitte Hazparneko Larregainbeheria etxean sortu zen 1902ko irailaren 2an. Haren aita Martin zurgina zen eta haren ama garbitzailea. Jatorriz hazpandarrak ere ziren bi kusiekin, adingabekoak bera bezala (Jeanty Detchart eta Jules Plantin), Paulin gaztea Kubara buruz itsasontziratatu zen 1921an, gurasoen baimen batekin. Hirurak Pedro Sondónen kusi ttipiak ziren, bera Gibarako eta gero Holguíneko zurrategiaren jabea izan zena 1895tik hara. Pedro Sondónek bere kusi ttipiak etorrazi zituen bere zurrategian lan egin zezaten.

Holguínen, Paulin (Pablo) Lafitte Florindarekin, Pedro Sondónen alaba batekin ezkondu zen 1925ko uztailaren 25an. Pablo Lafitten gaitasunek zurrategiaren jabea harritu zituen eta 1928an zendu aitzin, ez bere semeen baina bere suhiaren gomendio utzi zituen familiako lantegiaren giderrak. Zurrategiaren kudeatzaile bilakatu zenean, Lafitten lehen kezka izan zen lantegia errentagarri bihurtzea ; laster tresneria modernoa sarrarazi zuen ekoizpenaren emendatzeko eta lanaren errazteko. Daguerre bezala Gibaran eta bere aitaginarreba bezala, Euskal Herriko gazte batzuk jinarazi zituen. Bere anaia ere Holguínenra jin zaion Caibariénera Tellechearen zurrategira lanean aritzera joan aitzin. 1940 urte oparoenetan, Lafitten zurrategiak 800 larru ekoizten zituen hilabetero.



Beñat Çuburu-Ithorotzen artxiboak.

Españako Gerla Zibilak markatu zuen Pablo Lafitte eta bere artxiboetan, Carnet de ayuda a España bat aurkitzen da 1938 eta 1939 urteentzat eta *Carnet de ayudista a la Resistencia Anti-franquista* 1950 urtekoa.

Askatasunezko eta burujabetasunezko balorei handizki atxikia, Bigarren Munduko Gerlaren garaian eraginkortasunez parte hartu zuen Kuban Frantzia Librearen Mugimenduaren jardueretan, mugimendu horren sortzaileetarik izan zela eta. Uhartearen ekialdeko eremuaren ordezkaria izan zen, diru eta material biltzeko parte hartuz antolatu ziren ekitaldi guzietan. Pablo Lafitten emaztea Florinda Sondón Mugimenduaren emazte taldearen idazkaria zen. Haren inguruan ziren euskal emazte emigranteen eta Holguíneko « gizarte dirudunaren » emazteen laguntza antolatu zuen. Egin zuen lanaren aintzatespenez, orduko Habanako Frantziako Enbaxadoreak Kubako ekialdeko eremuarentzat kontsulako agente izendatu zuen eta De Gaulle Jeneralaren esker oneko gutun pertsonal bat ere eskuratu zuen.



Beñat Çuburu-lthorotzen artxiboak.

Gobernu iraultzaileak zurrategia nazionalizatu zuenean 1960 urteen hasieran, Pablo Lafittek industrial estatusa galdu zuen baina betidanik lan egin zuen lantegian teknikari bezala gelditu zen. Kalte-ordainak eskatzen ahalko zituen jasan desjabetzearengatik baina ez zuen horrelakorik egin. Ez zuen iraultzaileen bizkar eman hogeita hamar urtez eraiki zuenaren eraunztea. Garaiako burgesia menperatzailearen kide ainitzen gisa ihes egiten ahalko zuen, horretarako ahalbideak zituen. Alderantziz, Kuban hasten zen gizarte berriaren proiektuari erabat identifikatu zen, kubatar nortasuna hartzeraino. 1966an, Holguíneko zurrategiak oraindik zortzi langile bazituen ; gero, Orienteko probintziako zurrategi gehienak bezala behin betiko hetsi zen.

Jean-Pierre Choribit, larrugintzako industrialari baten bizia Txile eta Euskal Herriaren artean



Jean-Pierre Choribit. Beñat Çuburu-lthorotzen artxiboak.

Choribit familia Hazparneko zurrategiaren historiari hurbiletik lotua da. Egiako dinastia batetaz mintza gaitezke, herrian zurragintzan jardun zuelako XVIII. eta XIX. mendeetan ; gero XIX. mendea amaieraren krisialdia etorri zenean, Choribitarrek Txilera emigratu zuten eta beren lanbidean joritasuna ezagutu zuten XX. mendean.

Jean-Pierre Choribit, Narcisse Choribiten seme zaharrena, Talcahuano portuan lehorreratu zen, Concepción hiriaren ondoan, non beste hazpandar emigrante batzuk hura baino lehenago heldu ziren XIX. mende osoan.

Concepciónen finkatu zen, zurrategi batean denbora batez lan egin eta 1905an, Chillánen porrot egin zuen El Aguila zurrategia erosi zuen. Txilera heldu eta denbora gutira, bere hiru anaiak Pascal, Jean-Baptiste eta Joseph gazteena jin zaizkion, hauek emigratu zutela soldadugoa egin baino lehen.



Beñat Çuburu-lthorotzen artxiboak..



Beñat Çuburu-lthorotzen artxiiboak..

Familiako lantegia garatu zuten eta zapatagintza lantegi bat ere muntatu. Hastapenean, lantegia Curtiembre y Fábrica de Calzado J.P. Choribit deitzen zen eta gero Curtiembre y Fábrica de Calzado Choribit Hnos izenburua hartu zuen. Jean-Pierre Choribitek Hazparnen egiten zituen egonaldietaz baliatzen zen gazte joateko gogoia pizteko ; ezkongabeak hautatzen zituen, zurragintzan eta zapatagintzan adituak. Zurrategiak eta zapatagintza lantegiek berrehun bat langile zeuzkaten 1930 urteetan eta euskara mintzatzen zen, hain ziren emigranteak kopuru handian.

Garai hoberenean, zurrategiak 20 000 behi larru eta 30 000 ardi eta ahuntz larru ekoizten zituen urtero ; oinetakotegiaren ekoizpena aldiz 320 parekoa egunero. Zurrategian zein oinetakotegian ekoiztu produktuek hainbat sari lortu zituzten Txileko erakusketa industrialetan.



Beñat Çuburu-lthorotzen artxiiboak..

1939ko urtarrilaren 24an, izigarriko lur ikara batek Txileko erdigune guzira suntsitu zuen. Chilláneko hiria hunkienetarik izan zen, hogeita hamar bat mila biktima zenbatu ziren eta desmasia itzelak izan ziren. Lur ikarak Choribiten zurrategia eta oinetakotegia arrunt errautsi zituen. Makurrak handiak izan ziren eta lantegiko tresna asko galduak izan ziren. Ondorioz Choribit anaiek zapatagintza uztea erabaki zuten eta zurrategia soilik atxiki zuten. Honen jarduera 1981a arte jarraitu da, buru zuela José Alberto, Josephen semetxia, hazpandar zurratzaile dinastiaren azken kidea. Txileko zurrategiek diruz lagunduak ziren brasildar larruen konkurrentzia azkarra jasaiten zuten eta garai horretan ainitzek ateak hetsi zituzten. Lur ikararen ondotik, euskal presentzia Chillánen ainitzez gutitu zen.

Zurragintza eta zapatagintza arrunt desagertu badira Hazparnen, Choribitarrek larrugintzaren lanbideak handizki garatu zituzten Txilen, artisau eginmoldetik egiazko industriara pasaraziz. Jean-Pierre Choribit bi herrien arteko emigrantearen arketipoa da ; bere familiarekin Txile eta Hazparneren artean joan-jinak usu egin zituen eta Hazparnen zapatagintzan ari ziren industrialekin oso harreman hurbilak atxiki zituen.

Elkarrekintza ainitz bazen haien artean eta norberaren lantegien kudeaketa eta antolaketa moldeetaz xehetasunak partekatzen zituzten.

Jean-Pierre Choribit lekuko notableen kide zen eta Hazparnen nahi izan zuen aztarna bat utzi bere kausipenaren erakusle. 1929an, hotel-jatetxe handi bat eraiki arazi zuen, trinketa batekin haren kontra pilotan aritzeko.



Jean-Pierre Choribitek Hazparnen eraiki arazi zituen hotel-jatetxea eta trinketa. ONDAREAren artxiiboak.


Bernard eta Jean Broussain : emigrante aintzindariak



Jean eta Bernardin Broussain, Hazparnen sortuak 1812an eta 1816an Argentinako Córdobaan aberastu ziren. Familiako leiendak dio jakin eta indianoek animaleen larruzalak ibaira botatzen zituztela haragia kendu eta, zurratzeko baliatzen zituztela. Zurrategi bat eraiki zuten eta laster joritasuna ezagutu zuten.

Broussain anaien zurrategiaz gauza guti dakigu ; haatik, bere ekoizpenaren kalitatearentzat 1871ko Erakusketa nazionalen saristatua izan zen.

Biak ezkongabeak ziren ; Jean Broussain Argentinan hil zen eta bere parte ondoriotasunez bere anaia Bernardini utzi zuen, hau Baionan zendu zela. Hazparnen egonaldi bat egin ondoren, Niger itsasontzian Argentinara itzultzen zela eta, testamentu bat idatzi zuen zeintan bere iloba St Martin Harriague, Hazparenko auzapez izango zena, ondorio osoaren hartzaile izendatzen zuen. Herriari 100 000 frankoko emaitza egin zuen, eskola bat (*St Bernard* izendatuko zena) eta ospitale bat eraikitzekotan. Harrera egin zion herriarekin ere eskuzabala agertu zen Argentinako ongintza erakunde batzuei diru emaitzak eginez.



St Bernard ikastetxe ohiaren egoitza, Broussainen emaitza. Gaur Hazparneko zerga etxea. ONDAREaren artxiboak.

Martin Amespil : hazpandar zurratzaileen argentinar sarea

Hazparneko familia oso ezagun baten kide zen, XVIII. eta XIX. mendeetan herrian industria horren garapena bultzatu zuen zurratzaile eta oinetakogile leinu batena, bai eta Latinoamerikako hainbat herritan (Argentina, Uruguai, Txile eta Kuba).

Martin Amespilen hatza aurkitzen dugu Buenos Aireseko 1855ko jende kondaketan. Zurratzaile dela idatzia da eta Calle Maipúko 11. zenbakian bizi dela bere emazte Catherine Gastellussarryekin eta beren lau hurrekin. Beste hamabi presuna bizi zirela helbide berean adierazia da. Hain zuzen, Catherinen ahizpa Agnès Gastellussary eta bere senarraz bestalde (denak jatorriz Xiberuko Garindainekoak), zurrategian langile, saltzaile edo sukaldari bezala enpleguak ziren beste hamar presuna aurkitzen dira, guziak Euskal Herriko herri desberdinetatik jinak : Hazparnetik bi eta besteak Aiherra, Barkoxe, Baiona, Ziburu, Halsu, Itsasu, Donamartiri eta Donibane-Lohizunetik. 1851ko Buenos Aireseko Etxe komertzialen erroldan Martin Amespilen izena aurkitzen da eta Argentinako zurrategintzaz egin duen liburuan, Felix de Ugartechek Buenos Aireseko zurratzaile nagusietariko bat bezala seinalatzen du.

Argentinako Artxibo Nazionalan (*Archivo general de la Nación*) Martin Amespilen hatz zerbait ere aurkitzen da, Auzitegi Komerzialaren sailean, hain zuzen izan zituen afera batzuen kariatara : ordaindugabeak zituen zerga batzuen berreskuraketaz eta partzuer zuen bere anaiarekin ukan auzi batetaz.

Zein ziren Hazparnek ezagutu zituen hiru artisau jarduerak XVIII. eta XIX. mendeetan ? Hiru jarduera horietarik, zein da industrial modura garatu zena ?

Zein izan ziren lau arrazoi nagusiak Hazparneko jendetzaren parte handi baten emigrazioa azaltzen dutenak ?

Nolaz garai haietan Hazparneko demografia mantendu zen jakinez herriaren jendetzaren parte handi bat atzerriratu zela bi mendeetan ?

XVIII. mendean, Hazparneko zurragile batzuk atzerriratu ziren Españaiko iparraldeko eskualde batetara bereziki. Zein eskualdetara ? Zein da eskualde horretako hiriburua ? Hiri hori mundu osoan fama handia dauka, zergatik ?

9. orrialdean dagoen 1. mapan aurkituko dituzun xehetasunei esker, Hazparneko zurragile batzuek sortu zituzten 3 zurrategi bederen izenda itzazu.



Hazpandar emigrazioari harrera egin zioten 5 herri Latinoamerikarrak izenda itzazu. Inportantziaren arabera zerrenda itzazu. Munduaren parte hori agertzen duen mapa batean azpimarra ezazu non kokatzen diren.

Río de la Plata aipatzen dugunean, zertaz ari gara ? Zein dira gune hori inguratzen duten 2 herriak ?

Zein ziren Hazparneko emigranteek zituzten bi lanbide nagusiak ? Beste hiru ofizio izenda ditzakezu ?

Lotu itzazu hazpandar emigrante famatu bakoitzaren izen-deitura harrera herri egokiari :

Pascal Harriague

Martin Amespil

Txile

Gratien Daguerre

Argentina

Jean-Pierre Choribit

Kuba

Bernard eta Jean Broussain

Uruguai

Paul Lafitte

Jean Etchegaray



Jean-Pierre Choribitek eraiki arazi zuen Berria trinketaren gaurko aitzinaldea, Jean-Marc Charrillon hegazkin enpresaburuak arraberritua. ONDAREA artxiboak.

Gorago izendatu emigrante bat mahastizaintzan aitzindaria kontsideratua da Uruguaien. Nortaz ari gara ?



Pantxix Bidart.
Argazkia: Guillaume Fauveau.

Pantxix Bidart, Hazparneko kantaria-musikari azken 30 urte hauetan.

Gaur egun, transmizio lanetaz gain, hiru proiektu nagusitan dabil:

-Ah ! polifonia taldea ! (Marie Bidart, Claudine Arhantcet, Ander Barrenetxea eta Ibon RG); [2024ean diskoa grabatzekotan](#) ;

-Elimberri (Primaël Montgauzi kantari kaskoinarekin); [ELIMBERRI | Zahar ele, Zuhur ele | Pantxix Bidart & Primaël Montgauzi \(youtube.com\)](#)

-Bibi/Xixi (M. Gadou gitarristarekin); [BI-BI | Einstein on the Beach.](#)



Jean-Pierre Bidart (lehen eskuinaldetik lehen lerroan jarririk), Pantxix Bidarten aitaxia; 20 urteak bete aitzin Txilera atzeriratu zen; Yumbeleko (Txileko erdigunean) Casa Francesan komertzio enplegatua izan zen. Pantxix Bidartek eskeini argazkia.

Beti zerbaiten atzetik gabiltza. Hatzak aitzinakoen hatzetan pausatu nahian, agian.

Batzuen hatzek atzerrira eramaiten dituzte. Atzerria atzeen herria omen da. Atzeak, ahaide ez direnak. Beste batzuetan, ertzetatik hurbil gabiltza, noiztenka erotzerainoko puntuan...

Gure oinek utzitako bi hatzak bihotzak garamatzen bidetik doatzi. Nere hatzek ez naute Bordatenetik gehiegi urrundu. Hazia Hazparnen dut.

Hazparne hazi-herri eta hezi-herri izan dut, noiztenka herrarainoko puntuan...

Ez zait sekulan burutu (ene bi aitaxiei bezala), Txilera mugitzea, haitz barrenetik atzerrira. Agian, enetzat ez litzateke atzerria. Agian, aitaxiek utzitako haziek atzerria bihotz herri egin zuketan.


Hazparne azken herri izanen ote dut ? Azkena zer da ? Zure azken hatsaren hobia ote, zure azken hatzak lur honetatik kenduko dituen?

Hazparne maitatu dut, herraraino...

Hots, hotz, hats, hatz, ahaztezin, bihotz, bi hots, bi hatz, bi hats, bihar...

Eta bihar ? Seme alaben hatzek zer bide urratuko dute ? Noren atzetik ibiliko dira edo zer aha(n)tzi nahian ?

Pantxix Bidart Pla



Pantxix Bidart Isturitzeko harpeetan.
Argazkia: Patxi Laskarai.

St André de la Marche-ko Zapatagintzako Lanbideen Erakustokiaren bisita



2023ko azaroan, Cholet ondoan dagoen St André de la Marche-ko Zapatagintzako Lanbideen Erakustokia bisitatu genuen. Gilbert Hulin (enpresaburu ohia) eta Dominique Lefort (zapatagintzako makinerian komertzial aditua izana), Erakustokiko elkartearen lehendakariak eta lehendakari ordeak bai eta Sandy Antelme, Ondare eta Zapatagintzako Lanbideen Erakustokiaren arduradunak ongi etorri hoberena egin ziguten. Memoria eta transmisio gune horren sortzeko eman zizkiguten urraspideen azalpenek konbentzitu gaituzte. Erakustoki horretan, besteak beste, zapatagintza industrian erabiliak ziren makina sorta harrigarria ikus daiteke, gehienak oraindik ibilki direnak. Erakustokiak zapatagintzari buruzko dokumentazio funts garrantzitsu bat dauka ere. Topaketa balios bat izan zen, gure gogoetaren hazle izan daikekeena horrelako memoria gune baten sortzeko menturan Hazparnen.

Xehetasun guziak:

<http://www.museechaussure.fr>

Transmisioa

Bisita gidatuak euskaraz

AEKako euskarazko formakuntza intentsiboan ziren talde batzuentzat, bi bisita gidatu kudeatu genituen Hazparneko karriketean 2023ko abendoaren 15an eta 2024ko otsailaren 16an. Itxura guzien arabera, parte hartzaileek gauza ainitz ikasi dituzte, gehienek ez baitzuten gure herriaren zapatagintzari lotutako iragan industrial horren ezagutzarik.



Ustaritzen mintzaldia

ONDAREAK gogo onez ihardetsi zuen Uztaritzeko Ur Begi elkartearen gomitari, 2024ko martxoaren 15an Hazparneko zapatagintzaren historiaz iragan zen mintzaldi bat eskeiniz. Marie-Françoise Durrutyk eta Txomin Heguyk jendetza ederraren eta interesatu batenzat aurkezpena kudeatu zuten. Dominique Cornu ere bere presentziaz ohoratu gintuen, bera izan delarik 1975 urteetan Elkar argitaletxeak plazaratu zuen *Les travailleurs de la chaussure de Hasparren et le sens de leur histoire* erreferentziazko liburuaren egilea.

Gurekin harremanetan sar, xehetasun bat eskatu, **ORKEIA** agerkaria galdegin:

ONDAREA, Commission Histoire de Hasparren: histoire@ondarea-hazparne.fr

ONDAREAREN webgunearen sortzeko xedea daukagu. Kontsultatu dezakezu ere Günter Felberek sortu duena. Honek Hazparneko eiheren inbentario bikaina egin du (ikus ORKEIA 1, 16. orrialdean). Bere webgune gaurkotuan, ORKEIAREN lehen alean oinarrituz, Hazparneko zapata lantegiak, langile auzoaldeak eta beste gune batzuk ere integratu ditu. Horiek guziak mapa interaktibo baten bidez ikus daitezke. Hona lotura:

<https://sites.google.com/view/hasparren-moulins-et-usines/accueil>